

# ETXEBIZITZA ETA/EDO BAINUGELA EGOKITZEA, IRISGARRI EGITEKO

Garrantzitsua

**Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.**

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

**Adingabea -18 desgaitasunarekin > Laguntza etxean eta/edo bizitza autonomoa izateko**

Fitxa osoa kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio laburtua.](#)

## Zertan datza zerbitzu hau?

Zerbitzu honek ohiko etxebizitzaren oztopoak ezabatzeko aukera ematen duten egokitzeapenei buruzko proposamenak bideratu eta gauzatzen ditu, desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonen autonomia pertsonala hobetzeko helburuarekin ([2.7.2.2 fitxa](#)). Obren diseinua eta gauzatzea finantzatzen da, eta, zerbitzua ematea ezinezkoa bada, laguntza ekonomikoaren bidez bermatzen da.

## Nork jaso dezake zerbitzu hori?

% 33ko edo hortik gorako **desgaitasuna** duten pertsonak edo **mendekotasun-egoeran** daudenak.

## Zein baldintza zehatz bete behar dira zerbitzua eskatzeko?

- % 33ko edo hortik gorako minusbalotasuna eta/edo mendekotasuna onartua izatea.
- Adin mugarik gabe.
- EAEko edozein udalerritan erroldatuta egotea, eskaera egin aurreko 12 hilabeteetan.
- Aldez aurretik egokitze-zerbitzuan sartu ez izana, mugitzeko zailtasunak areagotu ez badira eta beste egokitzeapen batzuk egin behar ez badira.

## Zenbat balio du zerbitzuak?

**Koordainketaren menpe dagoen zerbitzua** da, hau da, erabiltzaileak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du bere egoera ekonomikoaren eta egokitzeapen motaren arabera.

## Nori dagokio zerbitzu hori ematea?

**Foru Aldundien** ardura da zerbitzua ematea.

## Non eska dezaket zerbitzua?

Zerbitzuaren eskaera zure auzo, udalerrri edo eskualdeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan egin behar da.

Zerbitzu honetan interesatuta bazaude eta gehiago jakin nahi baduzu, Gizarte Zerbitzuetan lan egiten duten pertsonekin hitz egin dezakezu. Nola funtzionatzen duen eta zerbitzu hori nola balia dezakezun azalduko dizute. Esaiguzu zure udalerrria eta harremanetarako lekuak eta datuak adieraziko dizkizugu.

## Zer arauk ezartzen du zerbitzu hori?

Zorroaren jatorrizko fitxarako sarbidea

## Informazio gehiago:

- [Laguntza-produktuen zerbitzua Araban](#)
- [Laguntza-produktuen zerbitzua Bizkaian](#)
- [Laguntza-produktuen zerbitzua Gipuzkoan](#)

[Fitxa laburrera itzuli](#)